



OPA ZANK!

BIDEO LEHIAKETAREN

cinarrak

1. Edozein **taldek edo kuadrillak** hartu ahal izango du parte. Ez dira bakarkako lanak onartuko.
2. Talde edo kuadrilla bakoitzak **nahi adina bideo** aurkeztu ahal izango ditu.
3. Bideo bakoitzak **gutxienez 5 minutuko** iraupena izango du, eta **gehienez ere 10 minutukoa**.
4. **Gaia librea** izango da.
5. **Animaziozko** lanak onartuko dira.
6. Bideoak **Sakanako hizkeran** egingo dira edo Sakanako hizkerako hitzak eta esamoldeak baliatuko dira.
7. Bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa edota errespetu falta ez dira onartuko, eta horiek agertzen dituzten bideoak lehiaketatik kanpo geratuko dira.
8. **Musikak**, norberak egina edo bakarlari edo talde bati hartua dela ere, **euskarazko hitzak izan behar ditu**. Nolanahi ere, **hitzik gabeko** musika ere ametitzen da.
9. Bideoa bidaltzen dutenek hainbat datu gehitu beharko dituzte: bideoaren izenburua, taldearen edo kuadrillaren izena, taldekideen izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa.
10. Bideoa euskara2@sakana-mank.eus helbidera bidaliko dira Wetransfer bidez. **Maiatzaren 30a** izango da lanak jasotzeko **azken eguna**.
11. Bi adituk osatutako epaimahaiak lanak ikusi eta epaituko ditu **kalitate teknikoa, originaltasuna, sormena eta Sakanako hizkera** kontuan hartuta.
12. Sariak honako hauek izanen dira: **lehendabiziko saria**: 400 euroko balea Sakanako Dendari, ostalari eta zerbitzuen Elkarteko denda batean gastatzeko. **Bigarren saria**: 8 lagunendako afaria Sakanako jatetxe batean (200 euroko gastua guztira). Gainera, **parte-hartzaile guztien artean bideokamera bat zozkatuko da**.
13. Sakanako Mankomunitateak eskubidea izango du jasoko diren bideoak Interneten eskegitzeko eta jendaurrean proiektatzeko.
14. Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko, parte-hartzaileek onartu egiten dute lehiaketa honetan ematen dituzten datu pertsonalak Sakanako Mankomunitatearen fitxategi batean gordeta geratuko direla.
15. Bideo lehiaketan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar.